**UDAL BATZARRAK 2015EKO UZTAILAREN 9AN EGINDAKO EZ OHIKO SAIOAREN AKTA.-**

Soraluzeko hirian, bi mila eta hamabosteko uztailaren bederatzian, hemeretzi orduak izanik eta aurrez deialdia delarik, Udaletxeko Saio Aretoan Patricia Borinaga Albeniz, Nagore Zabala Arrieta eta Iñaki Rubio Torrientes Alkateorde jaun-andreak eta Ramon Gallastegi Aldazabal, Javier Garmendia Ondarra, Unai Larreategi Azurmendi, Roke Akizu Aizpiri, Lorea de Castro Lete, Ainhoa Unamuno Aranburu eta Xabier Arribillaga Beretxinaga, Zinegotzi jaun-andreak, Iker Aldazabal Basauri Alkate jaunaren Lehendakaritzapean biltzen dira, lehenengo deialdiz eta Udaleko Idazkaria ere bertan dagoela, Itziar Sagastagoia Zabala And. alegia.

**Alkate jaunak** saioari hasiera ematen dio Idazkari berriari ongi etorria emanaz.

1.- **2015EKO EKAINAREN 13KO SAIOAREN AKTA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.-** Ikusirik, aho batez erabakitzen da 2015eko ekainaren 13an egindako saioaren akta onartzea, Batzarkide guztiei aurrez kopia bana bidali zaielarik.

2.- **TALDE POLITIKOAK ERATZEA.-** Udal Batzarra, Udal honetako hurrengo Talde Politiko hauen eraketaz jakitun geratzen da:

**EHBILDU TALDE POLITIKOA.-** Unai Larreategi Azurmendi, Roke Akizu Aizpiri, Lorea de Castro Lete, Ainhoa Unamuno Aranburu eta Xabier Arribillaga Beretxinaga Zinegotzi jaun-andreek osatzen dute; taldearen bozeramaile Unai Larreategi Azurmendi Jn. izendatzen dutelarik.

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO EL DÍA 9 DE JULIO DE 2015.-**

En la villa de Soraluze-Placencia de las Armas, siendo las diecinueve horas del día nueve de julio de dos mil quince, previa convocatoria al efecto, se reúnen en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, los Sres. Tenientes de Alcalde, Dña. Patricia Borinaga Albéniz, Dña. Nagore Zabala Arrieta y D. Iñaki Rubio Torrietes y los Sres. Concejales D. Ramón Gallastegi Aldazabal, D. Javier Garmendia Ondarra, D. Unai Larreategi Azurmendi, D. Roke Akizu Aizpiri, Dña. Lorea de Castro Lete, Dña. Ainhoa Unamuno Aranburu y D. Xabier Arribillaga Beretxinaga, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, D. Iker Aldazabal Basauri, en primera convocatoria y asistiendo como Secretaria, Dña. Itziar Sagastagoia Zabala.

El **Sr. Alcalde** abre la sesión dando la bienvenida a la nueva secretaria.

1.- **APROBACIÓN, EN SU CASO, DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 13 DE JUNIO DE 2015.-** Vista, se acuerda por unanimidad, aprobar el acta de la sesión de fecha 13 de junio de 2015, de la que se ha remitido copia a todos los Sres. Corporativos.

2.- **CONSTITUCIÓN DE GRUPOS POLÍTICOS.-** La Corporación Municipal muestra quedar enterada de la constitución de los siguientes Grupos Políticos de este Ayuntamiento:

**GRUPO POLÍTICO EHBILDU.-** Constituido por los Concejales D. Unai Larreategi Azurmendi, D. Roke Akizu Aizpiri, Dña. Lorea de Castro Lete, Dña. Ainhoa Unamuno Aranburu y D. Xabier Arribillaga Beretxinaga, que designan portavoz del grupo a D. Unai Larreategi Azurmendi.

**PARTIDO NACIONALISTA VASCO — EAJ-PNV TALDE POLITIKOA.-** Iker Aldazabal Basauri, Nagore Zabala Arrieta, Ramon Gallastegi Aldazabal eta Javier Garmendia Ondarra Zinegotzi jaun-andreek osatzen dute; taldearen bozeramaile Iker Aldazabal Basauri Jn. izendatzen dutelarik.

**SOCIALISTAS VASCOS - EUSKAL SOZIALISTAK TALDE POLITIKOA.-** Patricia Borinaga Albeniz eta Iñaki Rubio Torrientes Zinegotzi jaun-andreek osatzen dute; taldearen bozeramaile Patricia Borinaga Albéniz And. izendatzen dutelarik.

**3.- <u>UDALBATZAREN OSOKO BILKUREN ALDIZKAKOTASUNA.-</u>** Alkate Jn.k, Udalbatza honek bere ohiko saioak egiteko aldizkakotasuna zehaztearen egokitasuna eztabaidan jartzen du eta luzaroan eztabaidatu ondoren, gehiengoz, EAJ-PNVko (lau) eta PSE-EEko (bi) Batzarkideei dagozkien aldeko sei botoz eta EHBILDUko Batzarkideei dagozkien bost abstentzioz, honako hau erabaki zen:

Udalbatzak, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2 artikuluan eta Toki-Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Erregimen Juridikorako Araudiaren 78.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera, hilabete bakoitietako (rtarrila, martxoa, maiatza, uztaila, iraila eta azaroa) lehendabiziko asteazken baliodunean, arratsaldeko zazpietan egingo dituela bere ohiko saioak.

**Larreategi jaunak** bere taldearen bozka arrazoitzen du. Abstenitu egin dira ez dutelako aldez aurretik Alkatearen proposamenaren berri izan eta ezin izan dutelako, ondorioz, baloraziorik egin. Adierazten du, baita ere, proposamen gabezia aztergaien zerrendako puntu guztietan gertatzen denez, hauxe bera izango dela gai ezberdinak bozkatzerakoan jarraituko duten irizpidea. Eta amaitzeko esaten du, aurrerantzean beste era batera funtzionatzea komeniko litzatekeela.

**GRUPO POLÍTICO PARTIDO NACIONALISTA VASCO — EAJ-PNV.-** Constituido por los Concejales D. Iker Aldazabal Basauri, Dña Nagore Zabala Arrieta, D. Ramón Gallastegi Aldazabal y D. Javier Garmendia Ondarra, que designan portavoz del grupo a D. Iker Aldazabal Basauri.

**GRUPO POLÍTICO SOCIALISTAS VASCOS - EUSKAL SOZIALISTAK.-** Constituido por los Concejales Dña. Patricia Borinaga Albéniz y D. Iñaki Rubio Torrientes, que designan portavoz del grupo a Dña. Patricia Borinaga Albéniz.

**3.- <u>PERIODICIDAD DE LAS SESIONES DEL PLENO.-</u>** Por el Sr. Alcalde se puso a debate la conveniencia de señalar la periodicidad en que habrá de celebrar sus sesiones ordinarias este Ayuntamiento Pleno y después de amplia deliberación, por mayoría de seis votos a favor, correspondientes a EAJ-PNV (cuatro) y PSE-EE (dos), y cinco abstenciones, correspondientes a Corporativos de EHBILDU, se acordó:

Que el Ayuntamiento Pleno celebre sus sesiones ordinarias de conformidad con lo dispuesto en el artículo 46.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril y en el artículo 78.1 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, el primer miércoles hábil de los meses impares (enero, marzo, mayo, julio, septiembre y noviembre), a las diecinueve horas.

El **Sr. Larreategi** justifica el sentido del voto de su grupo. Se han abstenido ya que no han contado previamente con la propuesta del Alcalde y en consecuencia no han podido valorarla. Añade que, respecto de la ausencia de propuestas, ocurre lo mismo con el resto de puntos del orden del día, justificando así el criterio que van a seguir a la hora de votar los asuntos. Para finalizar su intervención manifiesta la conveniencia de que en adelante se funcione de otra manera.

**Alkate jaunak** erantzuten dio proposamen hau duela lau urte egin zuten berbera dela eta esperientziak argi utzi omen du proposatutako aldizkakotasuna hobeto egokitzen zaiela benetako premiei. Edozein modutan, urgentzia, premia edota berariazko eskaerarik balego, ez omen du inolako eragozpenik izango behar diren beste osoko bilkura deitzeko.

El **Sr. Alcalde** responde recordando que la propuesta es la misma que la que hicieron hace cuatro años y que la experiencia ha demostrado que la periodicidad que se propone de las sesiones se adecua más a las necesidades reales. De todas formas afirma que, en caso de urgencia, necesidad o petición expresa, no tendrá inconveniente alguno en realizar las convocatorias de plenos que hagan falta.

**Larreategi jaunak** erantzuten dio, mamia baloratzera sartu gabe, proposamenaren berri eman behar zitzaiela aurrez, aztertu ahal izateko bidezko bozka eman baino lehen. Eta Alkateari eskatzen dio onar dezala aldez aurretik informatu behar zituela.

El **Sr. Larreategi** le contesta que, sin entrar a valorar el fondo, tendría que haberse informado previamente de la propuesta para poder valorarla antes de dar el voto correspondiente. Le pide al Alcalde que reconozca que debía haberse informado con antelación.

**Unamuno andreak** ere zentzu berean hitz egiten du.

La **Sra. Unamuno** interviene en el mismo sentido.

**Alkate jaunak**, ondorengo puntura pasatu aurretik, esaten die euren iritzia dela eta hala jasotzen dela.

El **Sr. Alcalde**, antes de pasar al siguiente punto, les responde que es su opinión y que se recoge la misma.

**4.- <u>BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORREN SORRERA.-</u> Alkate jaunak** bere hizketaldiari hasiera ematen dio gogora ekarriz aurreko batzarraldian eskua luzatu ziola EHBILDU taldeari, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen ondorengo proposamen bateratua eginez:

-Alkarrekin Soraluze prozesuaren koordinazioaren ardura EHBILDU taldearen esku uztea eta, aldi berean, kontrolerako organo kolegiatu bat sortzea.
-Hizkuntza politikaren eta berdintasun batzordeen lehendakaritzak EHBILDU taldekoen esku uztea.

Bere hizketaldiarekin jarraitzen du gogoraraziz, EHBILDU taldeak, EAJ-PNV alderdia Alkatetzara nola iritsi den ikusita, txandakako Alkatetzan oinarritutako lidergo partekatua eskatzen zuela, herriko prentsan argitaratutakoaren arabera. Alkateak dio bere taldeak ez duela

**4.- <u>CREACIÓN DE LAS COMISIONES INFORMATIVAS PERMANENTES.-</u>** El **Sr. Alcalde** comienza su intervención recordando que en el pleno anterior tendió la mano a la formación EH BILDU, mediante el traslado de la siguiente propuesta conjunta del grupo EAJ-PNV y del grupo PSE:
-Delegar la responsabilidad de la coordinación de Alkarrekin Soraluze en el grupo EH BILDU, al tiempo que se preveía la constitución de un órgano colegiado de control.
-Delegar las presidencias de las comisiones de política lingüística y de igualdad a miembros del grupo EH BILDU.

Prosigue su intervención recordando que por parte de la formación EH BILDU, a la vista de cómo el grupo EAJ-PNV había accedido a la alcaldía se pedía un liderazgo compartido, basado en una alcaldía rotatoria, según lo aparecido en la prensa local. El Sr. Alcalde manifiesta

aipatutako aukera hori onesten, Alkate figura bakarra aurreikusten duelako, udal gobernu-burua izango dena eta erabateko arduraldia izango duena. Eta horrexegatik eten zirela negoziazioak gaineratzen du.

que su grupo no aprueba esta posibilidad ya que contempla la figura única de Alcalde, que lidere el gobierno municipal, con dedicación exclusiva. Por ello comenta que cesaron las negociaciones.

Ondoren, Udal Batzarraren edo, honen aginduz, Tokiko Gobernu-Batzarraren onarpena behar duten gaiak edota Tokiko Gobernu-Batzarrak edo Alkateak ezagutarazitako gaiak hobeto aztertu eta prestatzeko, Toki-Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Erregimen Juridikorako Araudiaren 123. eta ondorengo artikuluetan zehaztutako arauen arabera, honako Batzorde Informatzaile Iraunkor hauek sortzea proposatzen du Alkate Jn.k, talde politiko bakoitzak egoki iritzitako Zinegotziak izendatuko dituelarik Batzorde horietarako:

- Kontuak eta Ogasuna.
- Garapen ekonomikoa, Industria eta Enplegua.
- Pertsonala.
- Hirigintza.
- Obrak eta herriko mantentze lanak.
- Hezkuntza.
- Kirolak eta Kiroldegia.
- Hizkuntza politika.
- Kultura.
- Ingurumena eta Landa Garapena.
- Osasuna, Gizarte Ongizatea eta Inmigrazioa.
- Parekidetasuna.
- Haurrak eta Gazteak.

Acto seguido, para el mejor estudio y preparación de los asuntos que han de someterse a la aprobación del Ayuntamiento Pleno y de la Junta de Gobierno Local cuando ésta actúe con competencias delegadas por el Pleno y de los que la Junta de Gobierno Local o el Alcalde sometan a su conocimiento, el Sr. Alcalde propone que de conformidad con las reglas de los artículos 123 y siguientes del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, se creen las siguientes Comisiones informativas permanentes, a las que se adscribirán los Concejales que señale cada grupo político:

- Cuentas y Hacienda.
- Desarrollo económico, Industria y Empleo.
- Personal.
- Urbanismo.
- Obras y mantenimiento urbano.
- Educación.
- Deportes y Polideportivo.
- Política Lingüística.
- Cultura.
- Medio Ambiente y Desarrollo Rural.
- Sanidad, Bienestar Social e Inmigración.
- Igualdad.
- Infancia y Juventud.

Akordio honen bidez sortutako Batzorde guztien ohiko saioen aldizkakotasuna, Batzordeak berak zehaztuko du, lan-bolumenaren arabera.

La periodicidad de las sesiones ordinarias de todas y cada una de las Comisiones creadas por este acuerdo, la determinará cada Comisión en función de su carga de trabajo.

Udal Batzarrak gehiengoz erabakitzen du, EAJ-PNVko (lau) eta PSE-EEko (bi) Batzarkideei dagozkien aldeko sei botoz eta EHBILDUko Batzarkideei dagozkien bost abstentzioz, goian zerrendaratutako Batzorde informatzaile iraunkorrak sortzea.

La Corporación Municipal acuerda por mayoría de seis votos a favor, correspondientes a EAJ-PNV (cuatro) y PSE-EE (dos), y cinco abstenciones, correspondientes a Corporativos de EHBILDU, crear las Comisiones informativas permanentes relacionadas arriba.

**Larreategi jaunak** hitza hartzen du eta bere taldearen abstentzioa arrazoitzen du, adieraziz, bozkatu den gaiaren gaineko argibiderik ez dutela aldez aurretik jaso.

Izandako negoziazioen inguruan esaten du euren proposamena testuinguru horretan ulergarria dela eta proposatutako lidergo era ez zela mugatzen txandakako alkatetza batera.

Adierazten du ez dela posible gobernu partekatua osatzea erabakiak batzuk hartzen badituzte eta ondoren emate n badituzte azalpenak. Erabakiak hartu aurretik gainerakoen iritzia kontuan izan behar dela uste du. Eta honez gain, Alkatetzaren gaineko gure proposamenari ezetza esan zaio, baina inolako argibiderik eman gabe. Penagarria iruditzen zaio gobernua partekatu nahi ez izana, eta honen inguruan ere ez dutela inolako azalpenik jaso gaineratzen du.
Argitzen du Alkatetza bakarra proposatu zutela, baina bi izenekin. Alkarrekin Soraluze prozesuari dagokionean eta honen kudeaketa proposamenaz uste dute Alkatearen figura dela hau guztia bideratzeko egokiena, alegia, erabateko arduraldia eta egun osoko lanaldia dituen kargua, udaleko teknikariekin eta soraluzetarrekin elkarlanean. Izan ere, prozesu honek harreman zuzena eta dedikazio handia eskatzen ditu. Horiexek izan dira, bada, EHBILDU taldekook gobernu taldearen proposamena ez onartzera eraman gaituzten arrazoiak.

El **Sr. Larreategi** toma la palabra justificando la abstención de su grupo en el hecho de que no se hayan dado previamente explicaciones respecto del asunto que se ha votado.

En relación a las negociaciones mantenidas entiende que su propuesta es entendible en el seno de las mismas y que su propuesta de liderazgo no se limitaba únicamente a contar con una alcaldía rotatoria.
Afirma que no es posible formar un gobierno compartido si unos deciden y tras ello se limitan a explicar las decisiones. Consideran que es necesario que se cuente con la posición del resto antes de tomar las decisiones. Añade que junto con ello se ha dicho que no a la propuesta sobre la alcaldía, sin dar explicación alguna. Concluye diciendo que es una pena el no haber querido compartir gobierno y al tiempo que dice que tampoco se ha dado explicación alguna al respecto.
Aclara que se proponía una única Alcaldía pero con dos nombres. En cuanto a Alkarrekin Soraluze y la propuesta sobre su gestión consideran que la figura del alcalde es la idónea para liderar la misma, es decir, el cargo que lleva aparejado la dedicación exclusiva y una jornada completa, en coordinación con los técnicos municipales y los soraluzetarras. Este proceso requiere trato directo, con una dedicación importante y los argumentos expuestos constituyen la razón por la que el grupo EHBILDU ha rechazado la propuesta del equipo de gobierno.

**5.- <u>BOZERAMAILEEN BATZORDEA.-</u>** Udal Korporazioak gehiengoz erabakitzen du, EAJ-PNVko (lau) eta PSE-EEko (bi) Batzarkideei dagozkien aldeko sei botoz eta EHBIILDUko Batzarkideei dagozkien bost abstentzioz, Bozeramaileen Batzordea sortzea. Udalbatzan ordezkaritza duten talde politiko bakoitzeko bozeramaileek osatuko dute eta Alkatea izango da Batzorde horren buru.

**5.- <u>JUNTA DE PORTAVOCES.-</u>** La Corporación Municipal acuerda por mayoría de seis votos a favor, correspondientes a EAJ-PNV (cuatro) y PSE-EE (dos), y cinco abstenciones, correspondientes a Corporativos de EHBILDU, crear la Junta de Portavoces, que estará compuesta por los que lo sean de cada grupo con representación en el Pleno de la Corporación y será presidida por el Alcalde.

Legeak ez ditu Bozeramaileen Batzordearen egitekoak zehazten, ezta kontuan hartzen ere, hala ere, elkarrizketarako eta irizpideen batasunerako tresnatzat onartzen da.

Las funciones de la Junta de Portavoces no están definidas ni contempladas en la Ley, aunque se acepta como instrumento de diálogo e integración de criterios.

**6.- <u>ALKATETZAREN ERABAKIEN BERRI EMATEA, ALKATEORDEEN ETA TOKIKO GOBERNU-BATZARKIDEEN IZENDAPENEI DAGOZKIENAK ETA, BAITA ERE, ALKATETZAK EGOKI IRITZITAKO ESKU-EMATEEI BURUZKOAK.-</u>** Alkate Jn.k, honako gai hauetan hartutako erabakien berri ematen dio ondoren Udal Batzarrari:

**6.- <u>CONOCIMIENTO DE RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA EN MATERIA DE NOMBRAMIENTOS DE TENIENTES DE ALCALDE Y MIEMBROS DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL, ASÍ COMO DE LAS DELEGACIONES QUE LA ALCALDÍA ESTIME OPORTUNO CONFERIR.-</u>** Acto seguido por el Sr. Alcalde se procede a dar conocimiento a la Corporación de las resoluciones adoptadas en las materias siguientes:

**1.- <u>Tokiko Gobernu-Batzarkideak izendatzea.-</u>** Toki-Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Erregimen Juridikorako Araudiaren 41.3 eta 52.2 artikuluek ematen dizkidaten eskuduntzekin bat etorriz, hurrengo Zinegotzi hauek izendatu ditut Tokiko Gobernu-Batzarkide: Patricia Borinaga Albeniz And., PSE-EE talde politikokoa; Nagore Zabala Arrieta And., EAJ-PNV talde politikokoa; eta Iñaki Rubio Torrientes Jn., PSE-EE talde politikokoa.

**1.- <u>Nombramiento de Miembros de la Junta de Gobierno Local.-</u>** De conformidad con las atribuciones concedidas por los artículos 41.3 y 52.2 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, he nombrado Miembros de la Junta de Gobierno Local a los siguientes Concejales: a Dña. Patricia Borinaga Albéniz, perteneciente al grupo político PSE-EE, a Dña. Nagore Zabala Arrieta, perteneciente al grupo político EAJ-PNV; y a D. Iñaki Rubio Torrientes, perteneciente al grupo político PSE-EE.

**2.- <u>Alkateordeak izendatzea.-</u>** Toki-Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Erregimen Juridikorako Araudiaren 41.3 eta 46.1 artikuluek ematen dizkidaten aginte eta eskuduntzekin bat etorriz hurrengo Zinegotzi hauek izendatu ditut Alkateorde:

Lehen Alkateordea: Patricia Borinaga Albeniz And.
Bigarren Alkateordea: Nagore Zabala Arrieta And.
Hirugarren Alkateordea: Iñaki Rubio Torrientes Jn.

Alkateordeei, Alkateorde bezala eta izendapenari jarraituz, Alkatearen ordezkapena egitea dagokie honen

**2.- <u>Nombramiento de Tenientes de Alcalde.-</u>** De conformidad con las facultades y atribuciones concedidas por los artículos 41.3 y 46.1 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, he nombrado Tenientes de Alcalde a los Concejales siguientes:
Primera Teniente de Alcalde: Dña. Patricia Borinaga Albéniz.
Segunda Teniente de Alcalde: Dña. Nagore Zabala Arrieta.
Tercer Teniente de Alcalde: D. Iñaki Rubio Torrientes.

A los Tenientes de Alcalde, en cuanto a tales, les corresponderá sustituir en la totalidad de sus funciones y por el orden

funtzio guztietan, kanpoan izate, gaixotasun edo beste eragozpenengatik bere udal-eginbeharrak burutu ezin dituenean eta baita ere, Alkatetza hutsik geratu ezkero, Alkatearen funtzioak betetzea, Alkate berria karguaz jabetu arte.

**3.- Eskuordetzeak.-** Toki-Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Erregimen Juridikorako Araudiaren 43. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Toki-Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Erregimen Juridikorako Araudiaren 41. artikuluan Alkateari leporatzen zaizkion honako eskubide hauek, Tokiko Gobernu-Batzarraren esku uztea erabaki dut:

- Aurrez hitzartutako obra eta zerbitzuen egiterapena zuzendu, sustatu eta ikuskatu, beharrezko aholkularitza teknikoak bilduz.

- Lantegi, industri edo merkataritza establezimenduak, edo beste edozein motakoak, zabaltzeko baimenak ematea, eta oro har obretarako baimenak, ordenantza edo lege sektorialek berariz Udalbatzari edo Tokiko Gobernu-Batzarraren esku uzten badute salbu.

- Kontratazio araudiak Alkateen esku uzten dituen obra, zerbitzu eta horniduren kontratazioa eta emakida, hauen zenbatekoa bere aurrekontuaren errekurtso arrunten %10a ez denean.

- Korporazioko pertsonal laborala kontratatu eta bota eta pertsonal hau lan legediaren arabera Korporazioak onartutako zerrendetan aurreikusitako laboral izaerako lanpostuetara izendatzea.

- Indarreango legedian aurreikusitako moduan behin-behineko eta aldi baterako pertsonala izendatzea eta lanpostua uzte-araztea.

de su nombramiento, al Alcalde, en los casos de ausencia, enfermedad o impedimento que le imposibilite para el ejercicio de sus atribuciones, así como desempeñar las funciones de Alcalde en los supuestos de vacante en la Alcaldía hasta que tome posesión el nuevo Alcalde.

**3.- Delegaciones.-** De conformidad con lo dispuesto en el artículo 43 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, he resuelto delegar en la Junta de Gobierno Local el ejercicio de las atribuciones que se relacionan atribuidas al Alcalde por el artículo 41 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales en los siguientes puntos:

- Dirigir, impulsar e inspeccionar las obras y servicios cuya ejecución o realización hubiese sido acordada, recabando los asesoramientos técnicos necesarios.

- La concesión de licencias de apertura de establecimientos fabriles, industriales o comerciales y de cualquier otra índole y de licencias de obra en general, salvo que las ordenanzas o las leyes sectoriales la atribuyan expresamente al Pleno o a la Junta de Gobierno Local.

- La contratación y concesión de obras, servicios y suministros que la normativa de contratación otorga a los Alcaldes y cuya cuantía no exceda del 10% de los recursos ordinarios de su presupuesto.

- Contratar y despedir al personal laboral de la Corporación y asignar al mismo a los distintos puestos de carácter laboral previstos en las correspondientes relaciones aprobadas por la Corporación de acuerdo con la legislación laboral.

- Nombrar y cesar al personal interino y eventual en los términos previstos en la legislación vigente.

- Disziplina espedienteak zabaltzeko agintzea eta edozein langile motari horren berri eman eta aldi baterako enpleguaz gabetu.

- Korporazioko langile guztiak saritu edo santzionatu, santzioa pertsonal laborala zerbitzutik bereiztea edo lanpostutik kentzea bada salbu. Nazio mailako gaikuntzako funtzionarioentzat, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 99.4 artikuluan eta Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileko 151 artikuluan xedatutakoa beteko da.

- Egoera administratiboen deklarazioa eta pertsonal guztiaren jubilazioa.

- Kontuhartzailetza zerbitzuek jasorik, aurrekontuaren garapen arruntari dagozkion fakturak onartzea.

7.- **UDALAREN ORDEZKARIAK IZENDATZEA, UDALBATZAREN ESKUMENEKO ERAKUNDE KOLEGIATUETARAKO.-** Alkatetzak ondorengo proposamena egiten du: Iker Aldazabal Basauri Alkate Jn. Udal honen ordezkari-buru izendatzea Gipuzkoako Ur Partzuergoan eta Patricia Borinaga Albeniz lehenengo Alkateorde And. bere ordezko izendatzea; Nagore Zabala Arrieta And. Udal honen ordezkari izendatzea "Plaentxi Herri Ikastetxe"ko eta "Soraluze BHI Institutu"ko Zuzendaritza Kontseiluetan; Iker Aldazabal Basauri Jn. Udal honen ordezkari izendatzea DEBEGESAn; Patricia Borinaga Albeniz And. Udal honen ordezkari izendatzea herri honetako "Itxaropena" Jubilatuen Etxeko Batzordean; Iker Aldazabal Basauri Jn. Udal honen ordezkari izendatzea EUDELen; Iker Aldazabal Basauri Jn. Udal honen ordezkari izendatzea Elkarkidetzan; Iker Aldazabal Basauri Jn. eta Iñaki Rubio Torrientes Jn. Udal honen ordezkari izendatzea "Sologoen, S.A. Zentral Hidroelektrikoa"ren Batzordean.

- Ordenar la instrucción de expedientes disciplinarios y apercibir y suspender previamente a toda clase de personal.

- Premiar y sancionar a todo el personal de la Corporación salvo que la sanción consista en la separación del servicio o el despido del personal laboral. Para los funcionarios de habilitación nacional se estará a lo dispuesto en los artículos 99.4 de la Ley 7/1985, de 2 de abril y 151 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local.

- La declaración de situaciones administrativas así como la jubilación de todo el personal.

- Aprobar las facturas que correspondan al desarrollo normal del presupuesto y que hubieran sido recibidas por los servicios de intervención.

7.- **NOMBRAMIENTO DE REPRESENTANTES DE LA CORPORACIÓN EN ÓRGANOS COLEGIADOS, QUE SEAN DE LA COMPETENCIA DEL PLENO.-** La Alcaldía formula la siguiente propuesta: Nombrar al Sr. Alcalde, D. Iker Aldazabal Basauri, como titular representante de este Ayuntamiento en el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa y como suplente a la primera Teniente Alcalde, Dña. Patricia Borinaga Albéniz; a Dña. Nagore Zabala Arrieta, representante de este Ayuntamiento en los Consejos de Dirección de "Plaentxi Herri Ikastetxea" y "Soraluze BHI Institutua"; a D. Iker Aldazabal Basauri, representante de este Ayuntamiento en DEBEGESA; a Dña. Patricia Borinaga Albéniz, representante de este Ayuntamiento en la Junta del Hogar del Jubilado "Itxaropena" de esta Villa; a D. Iker Aldazabal Basauri, representante de este Ayuntamiento en EUDEL; a D. Iker Aldazabal Basauri, representante de este Ayuntamiento en Elkarkidetza; a D. Iker Aldazabal Basauri y D. Iñaki Rubio Torrientes, representantes de este Ayuntamiento en la "Central

Hidroeléctrica Sologoen, S.A.”.

Alkatetzak egindako proposamena bototara jarririk, ondorengo emaitza ateratzen da: EAJ-PNVko (lau) eta PSE-EEko (bi) Batzarkideei dagozkien aldeko sei boto eta BILDUko Batzarkideei dagozkien aurkako bost boto. Beraz, aipatutako proposamena onartu egiten da.

Sometida a votación la propuesta planteada por la Alcaldía, se obtiene el siguiente resultado: Seis votos a favor, correspondientes a Corporativos de EAJ-PNV (cuatro) y PSE-EE (dos), y cinco votos en contra, correspondientes a Corporativos de EHBILDU. Por tanto, se aprueba dicha propuesta.

DEBEMEN elkarterako Udal honen ordezkariaren izendapenari dagokionean, bi proposamen egin dira, bat Alkatetzaren aldetik eta bestea EHBILDU udal taldearen aldetik. Alkatetzak Javier Garmendia Ondarra Jn. izendatzea proposatzen du eta EHBILDU udal taldeak, aldiz, Roke Akizu Aizpiri izendatzea proposatzen du.

En relación a la designación del representante de este Ayuntamiento en la asociación DEBEMEN, se realizan dos propuestas, una por parte de la Alcaldía y otra por parte del grupo municipal EHBILDU. La Alcaldía propone nombrar a D. Javier Garmendia Ondarra, a la vez que EHBILDU propone nombrar a D. Roke Akizu Aizpiri para dicho órgano.

Proposamen biak bototara jarririk, Alkatetzaren proposamena gehiengoz onartu da, EAJ-PNVko (lau) eta PSE-EEko (bi) batzarkideei dagozkien aldeko sei botoekin. Eta EHBILDU udal taldearen proposamenak bere batzarkideen aldeko bost botoak baino ez ditu lortu. Hortaz, Javier Garmendia Ondarra Jn. izendatzen da Udal honen ordezkari DEBEMEN elkartean.

Sometidas ambas propuestas a votación, es aprobada por mayoría de seis votos a favor, correspondientes a Corporativos de EAJ-PNV (cuatro) y PSE-EE (dos), la propuesta de la Alcaldía, mientras que la propuesta formulada por EHBILDU, sólo obtiene los cinco votos favorables de sus corporativos. Por tanto, D. Javier Garmendia Ondarra es nombrado representante de este Ayuntamiento en DEBEMEN.

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen Batzorde Nagusirako Udal honen ordezkariaren izendapenari dagokionean, hiru proposamen egin dira, bat Alkatetzaren aldetik, beste bat PSE-EE udal taldearen aldetik eta hirugarrena EHBILDU udal taldearen aldetik. Alkatetzak Iker Aldazabal Basauri Jn. izendatzea proposatzen du, PSE-EE udal taldeak Iñaki Rubio Torrientes Jn. izendatzea eta EHBILDU udal taldeak, azkenik, Unai Larreategi Azurmendi Jn. izendatzea.

En relación a la designación del representante de este Ayuntamiento en la Junta General de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, se realizan tres propuestas, una por parte de la Alcaldía, otra por parte del grupo municipal PSE-EE y la tercera por parte del grupo municipal EHBILDU. La Alcaldía propone nombrar a D. Iker Aldazabal Basauri, a la vez que el PSE-EE propone nombrar a D. Iñaki Rubio Torrientes y EHBILDU propone nombrar a D. Unai Larreategi Azurmendi.

Hiru proposamenak bototara jarririk, Alkatetzaren proposamenak EAJ-PNVko batzarkideen aldeko lau botoak eskuratu ditu; PSE-EE udal taldearen proposamenak bere batzarkideen aldeko

Sometidas las tres propuestas a votación, la propuesta de la Alcaldía obtiene cuatro votos favorables, correspondientes a los corporativos de EAJ-PNV; la propuesta formulada por PSE-EE obtiene

bi botoak lortu ditu; eta onartzen da EHBILDU udal taldearen proposamena, bere batzarkideen aldeko bost botoak eskuratu dituelako. Ondorioz, Unai Larreategi Azurmendi Jn. izendatzen da Udal honen ordezkari Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen Batzorde Nagusian.

dos votos favorables, correspondientes a sus corporativos; aprobándose la propuesta de EHBILDU que obtiene cinco votos favorables correspondientes a sus corporativos. Por tanto, D. Unai Larreategi Azurmendi es nombrado representante de este Ayuntamiento en la Junta General de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

"SORALUZEKO MESEDEETAKO ANDRE MARIAREN EGOITZA" Fundazioaren estatutuek 11. artikuluan xedatutakoa betez, Alkateak proposatzen du Udalaren gobernu taldeko kide diren Patricia Borinaga Albeniz And. eta Iñaki Rubio Torrientes Jn. izendatzea adierazitako Fundazioaren Batzarkide.

De conformidad con el artículo 11 de los estatutos de la Fundación "RESIDENCIA N.S. DE LA MERCED DE SORALUZE - SORALUZEKO MESEDEETAKO A.M. EGOITZA", el Alcalde propone designar a los miembros del equipo de gobierno, Dña. Patricia Borinaga Albéniz y D. Iñaki Rubio Torrientes, vocales de dicha Fundación.

Era berean, eta aipatutako artikuluarekin bat etorriz, EHBILDU udal taldeak proposatzen du Lorea de Castro Lete And. izendatzea, baita ere, Fundazio horren Batzarkide.

De igual modo, y de conformidad con el mencionado artículo, el grupo municipal EHBILDU propone designar, asimismo vocal de dicha Fundación a Dña. Lorea de Castro Lete.

**8.- <u>ALKATEAREN DEDIKAZIOA.-</u>** **Alkate jaunak** puntu honen sarreran esaten du bere taldea beti egon dela Alkate karguak erabateko arduraldia izatearen alde.

Ikusita, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.5 artikuluak dioena, hau da, Toki-korporazioko kideek eskubidea edukiko dutela ordainsaria jasotzeko eta Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean alta emateko, arduraldi esklusiboz edo partzialez bere eginkizunak betetzeagatik.

Ikusita aipatutako xedapenak dioena, Udalaren gaur egungo egoera, bai eta udal funtzionamendu eta kudeaketa eraginkor bat lortzeko beharrezkoa dela kide batzuk beraien eginkizunak arduraldi jakin batez betetzea,

Udal Batzarrak, gehiengoz, EAJ-PNVko

**8.- <u>DEDICACIÓN DEL ALCALDE.-</u>** El **Sr. Alcalde** introduce el punto afirmando que su grupo siempre ha defendido que el cargo de Alcalde debe tener dedicación exclusiva.

Visto que el artículo 75.5 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de régimen Local, establece que los miembros de las Corporaciones Locales tendrán derecho a percibir retribuciones y a darse de alta en el Régimen General de la Seguridad Social, por el ejercicio de cargos, en régimen de dedicación exclusiva o dedicación parcial.

Visto lo contemplado en la citada disposición, la situación actual del Ayuntamiento y considerando que para conseguir un funcionamiento municipal y gestión eficientes es necesario que algunos miembros desarrollen su labor con una dedicación determinada en sus cargos,

La Corporación Municipal, por mayoría

(lau) eta PSE-EEko (bi) Batzarkideei dagozkien aldeko sei botoz eta BILDUko Batzarkideei dagozkien aurkako bost botoz, hurrengo hau **ERABAKI DU:**

de seis votos a favor, correspondientes a Corporativos de EAJ-PNV (cuatro) y PSE-EE (dos), y cinco votos en contra, correspondientes a Corporativos de EHBILDU, **ACUERDA:**

**Lehenengoa**: Alkate karguaren arduraldi esklusiboa onartzea, lanaldi osoz eta urteko 57.023 euroko ordainsari gordinarekin, 14 hilekotan ordainduko dena.

**Primero**: Aprobar la dedicación exclusiva del cargo de Alcalde, a jornada completa y con una retribución anual bruta de 57.023 euros, a pagarse en catorce mensualidades.

**Bigarrena**: Gizarte Segurantzako eregimen orokorrean alta tramitatzea.

**Segundo**: Tramitar el correspondiente alta en el Régimen de la Seguridad Social.

**Hirugarrena**: Akordio honek 2015eko uztailaren 10etik izango du eragina.

**Tercero**: El presente acuerdo tendrá efectos desde el día 10 de julio de 2015.

**Laugarrena:** Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragartzea.

**Cuarto**: Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

**Alkate jaunak,** Gipuzkoako Foru Aldundiko Araubide Juridikoko Zuzendariak, Luis Eliceguik, 2015eko ekainaren 11an egindako txosten juridikoaren zati bat irakurtzen du: "Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoetako foru erakundeek, toki korporazioetako kideen ordainsarien eta asistentzien gehieneko kopuruen mugak ezarriko dituzte, baita toki korporazioetako eta horien sektore publikoko behin-behineko langileenak eta gainerako langileenak, eta gaikuntza nazionala duten funtzionarioenak ere. Aipatu ordainsariak, beti ere, Estatuko legerian jasotako printzipioei eta egiturari erantzunez ezarriko dira".

El **Sr. Alcalde** procede a leer un extracto del informe jurídico, de fecha de 11 de junio de 2015, realizado por el director de Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Gipuzkoa, Luis Elicegui: "los órganos forales de los Territorios Históricos vascos determinarán los límites máximos totales del conjunto de las retribuciones y asistencias de los miembros de las Corporaciones Locales, del personal eventual y del resto de personal al servicio de las Corporaciones Locales y su sector público y de los funcionarios con habilitación de carácter nacional. La determinación de tales retribuciones atenderá a los principios y estructura establecidos, en su caso, por la legislación estatal".

Aldi berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehazten dituen ekainaren 30eko 1/2015 Foru Dekretu-Arauaren aipamena ere egiten du.

Asimismo cita el Decreto Foral-Norma 1/2015, de 30 de junio, por el que se determinan los límites máximos de las retribuciones de las y los miembros de las corporaciones locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

**Larreategi jaunak,** hitza hartuz, adierazten dio erabakia legezkoa dela, bai, jasoko duen kopurua baimendutako handiena dela eta euro bakar bat ere ez duela barkatu.

El **Sr. Larreategi** interviene para manifestar que efectivamente se trata de una decisión legal, que la cantidad a percibir es el máximo que puede asignarse y que no ha perdonado ni un euro.

Argi uztea komeni da, bere ustez, kopuru hori gobernu talde osoaren erabakia izan dela. Soldata duin bat izango litzatekeena askozaz gainditzen duela irizten dio, Soraluzeko familia baten batez besteko errenta 33.000 eurokoa baita. Hortaz, onartu berri den ordainsari hau guztiz desproportzionatua da, bai gure herriaren errealitateari begira, baita udal aurrekontuari begira ere. Aipatzen du, honen harira, aurreko legegintzaldian aurrekontuaren oreka lortu dela eta orain, berriz, ikusteko dago nola aurre egiten zaion gain-kostu honi.

**Alkate jaunak** erantzuten dio gain-kostu hori gutxi gora behera 13.000 eurokoa izango dela aurten, eta aurrekontuaren soberakinarekin aurre egingo zaiola.

**Larreategi jaunak** kaxa zaintzeko eskatzen dio eta **Alkateak** horrela egingo duela erantzuten dio.

**Unamuno andreak** ere proportziorik gabea deritzo ordainsari horri, kontuan izaten badira herriaren egoera, langabezia tasa, egun %19koa dena, eta tipologia. Umiltasun falta iruditzen zaio eta gai honen inguruko hausnarketa egin beharraz mintzo da. Sinesgaitza egiten zaio PSEk Alkatearen ordainsari hori onartu izana.

**Borinaga andreak** erantzuten dio gauza asko iruditzen zaizkiola pasada bat eta azken boladan demagogia ikaragarria ikusten duela politikoen soldaten inguruan. Udalak aurreko legegintzaldian sinatutako laguntza teknikorako kontratua aipatzen du, kontzeptu honengatik eta egun erdiko lanaldiagatik ere soldata bat ordaintzen zela azalduz.

**Larreategi jaunak** argitzen du kontratu horretan, autonomoa izanik, ez zela lanaldirik zehazten, eta inoiz ez direla kopuruak ezkutatu.

Eta beste gairik ezean eta hemeretzi orduak eta berrogeita hamar minutu direnean, Lehendakaritzaren

Cree que debe dejarse claro que la asignación de esa cantidad es una decisión del equipo de gobierno. Le parece que excede de lo que sería un sueldo digno, al tiempo que ofrece el dato de que la renta media familiar en Soraluze es de 33.000€. Considera pues, la cantidad desproporcionada, tanto atendiendo a la realidad del municipio como al presupuesto municipal. En este sentido, cita que en la anterior legislatura se ha conseguido equilibrar el presupuesto y que habrá que ver cómo se cubre el sobrecoste que supone.

El **Sr. Alcalde** responde que para este ejercicio el sobrecoste asciende a unos 13.000€, que va a ser financiado con cargo a remanente del presupuesto.

El **Sr. Larreategi** le pide que cuide la caja y a lo que el **Sr. Alcalde** responde que así lo hará.

La **Sra. Unamuno** considera también desproporcionada la retribución teniendo en cuenta la situación del pueblo, la tasa de paro que asciende al 19% y su tipología. Concluye que hay una falta de humildad y cree debería reflexionarse sobre el tema. Añade que le parece increíble que el PSE apruebe la retribución del Alcalde.

La **Sra. Borinaga** responde que hay muchas cuestiones que le parecen una pasada y que últimamente hay mucha demagogia con los sueldos de los políticos. Cita el contrato de asistencia técnica firmado por el ayuntamiento en la legislatura anterior para constatar la existencia de una asignación por este concepto en mitad de jornada.

El **Sr. Larreategi** puntualiza que en dicho contrato, al tratarse de un autónomo, no había ninguna jornada establecida como tal, y que nunca se han ocultado las cantidades.

Y no habiendo más asuntos de qué tratar y siendo las diecinueve horas y cincuenta minutos, de orden de la

aginduz saioa bukatutzat ematen da, hori guztia Idazkari bezala ziurtatzen dudalarik.

Presidencia se levanta la sesión, de todo lo cual, como Secretaria, certifico.